



BARREN
TOKIKOM



Euskarara etorrita

Reyes Prados

ROSA M^a PINTADO
Etxaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net



Aholkularitza
kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroelako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

administradores

Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioen
Lurralde Kontseilua


DERRIGORREKO
KOLEGIATZEA

BAI!
MILA ESKER

Zer moduz ari zara Euskaraldia ariketarako aukeratu duzun rola betetzen?



NAGORE GUARDIA: “Ahobizi rola aukeratu nuen euskaraz hitz egiten dakidalako, eta hasieran, oso ondo hasi nintzen, ilusio handiz eta denei euskaraz egiten. Baina aitortu behar dut egunak aurrera joan diren heinean hasierako motibazio hori galdu egin dudala, eta orain, ez nabil hain ondo betetzen nire rola. Saiatzen ari naiz, eta lehen gaztelaniaz hitz egiten nuen lagun batzuekin gehiago egiten dut euskaraz, baina ez da hasierako egunetan bezala. Txapa bera janztea ere ahaztu egiten zait egun batzuetan. Ez da oso eroso arropa batetik bestera aldatzen ibiltzea, eta batzuetan ez dut erabiltzen”.



ANGEL QUINTANA: “Etxean eta lagunartean gaztelaniaz egin izan dut beti, baina Morkaikoren mendi irteeretan konturatu nintzen jende talde harekin euskaraz hitz egin nahi nuela, eta horrela hasi nintzen euskara gehiago hitz egiten. Badakit batzuek beti egiten dutela euskaraz eta nik ere horiei beti egiten diet euskaraz. Beraz, nolabait Ahobizi ere banaiz, baina niretzat errazagoa da Belarriprest izatea. Euskaraz egiten didanari, nik euskaraz egiten diot. Lanagatik asko bidaiatzen dut, eta kasu horietan gaztelaniaz egiten dut, baina asteburuetan euskaraz bizi naiz. Beldurra kendu diot, eta orain, asko hitz egiten dut euskaraz”.



MARI JOSE GARATE, Uzuri optika: “Oso ondo ari gara, eta esperientzia oso positiboa iruditu zaigu. Bezeroei harrera beti euskaraz egiten diegu, eta lehenengo saiakera elkarrizketa euskaraz mantentzea izaten da. Ikusten badugu ez dakitela, orduan gaztelaniaz jarraitzen dugu. Gure artean ere batzuetan lan kontuak gaztelaniaz hitz egiten ditugu, baina Euskaraldiari esker euskaraz lan egiten ahalegindu gara, eta oso ondo moldatu gara. Esango nuke bi aste hauetan gehiago egin dugula denok euskaraz”.



MARIA ARRIZABALAGA, Armueta harategia: “Oso ondo. Arazorik gabe ari gara. Gu euskaldunak gara eta lehen ere asko egiten genuen euskaraz. Bezeroei lehenengo hitza beti egiten diegu euskaraz, baina bezeroak gaztelaniaz erantzuten badigu, berera moldatzen gara. Zaila egiten zaigu gaztelaniaz hitz egiten duenari euskaraz egitea. Baina euskaraz hitz egin nahi duenak badaki gurean egin dezakeela. Gu Ahobizi eta Belarriprest gara, bi rolak betetzen ditugu, euskaraz hitz egiteko arazorik ez daukagulako eta ulertzeko ere ez”.



KAI ZUBIAURRE “Ahobizi naiz, eta lehenengo egunetan batzuetan arraro sentitu nintzen, konturatu gabe erdararako joera izan nuelako batzuetan. Egunerokoan espresio jakin batzuk erdaraz esateko ohitura daukagu kuadrillan, denok euskaldunak izan arren, baina denok eman dugu izena Euskaraldian, ahobizi rolean, eta kontzientzia handiagoz ari gara orain. Eskolan ere arigunea da gure gela eta etxean dena egiten dugu euskaraz. Euskaldunok kontzientzia hartzean dago kontua. Eta nik konpromisoa hartu dut ariketa bukatutakoan ere euskaraz gehiago egiteko”.



MERTXE DEL SOL: “Gustura ari naiz ni, baina inguruan ahobizi asko entzuten ditut erdaraz. Neuri ere gertatzen zait batzuetan, euskaraz hasi eta erdarara pasatzea. Inguruak eragin handia du horretan. Nik euskara gehiago entzun nahi nuen nire bueltan eta horregatik aukeratu nuen Belarriprest rola, euskaraz dakitenak niri euskaraz egitera behartzeko. Horregatik, eta gurasoen etxeko hizkuntza erdara delako. Erdaldunak ditut gurasoak eta nire lau nebek ere ez dute euskara ikasi. Nik, baina, euskara ikastea erabaki nuen, Mendarora etorri aurretik Azkoitin bizi izan nintzelako eta amorrua ematen zidalako euskaraz egin ezinak. Euskarak bertakotzen lagundu zidan. Euskara eta euskal kultura ondarea dira, aberastasuna, eta hori zaindu beharra dugula iruditzen zait.





EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa

Zergatik?

dioa modu argian ikustea garalarazten diguna; kanpo arrazoiak bilatzen baititugu eraso eta hilketei "logika" bilatzeko, eta honek aldentzen gaitu biktimarengandik, jakin gabe horixe dela bera erlazio horretan korapilatua mantentzen duena.

Maite dugun eta aukeratu dugun horrek boterearen logika jarraitzen duela ulertzea asko kostatzen zaigu. Erlazioak ulertzeko bi modu dira: bata, lotura sortu nahi du elkar ulertze eta adostasunetik, eta besteak, aldiz, boterea duela ikusi behar du norbait dela sentitzeko eta bere behar hori da printzipala, emakumeak helburu horretara iristeko erabil daitezkeen tresnak dira, emakume baten miresmena eta obediencia baita gizonari balioa ematen diona.

Ohiko galdera izaten da ea zerk egiten gaituen zaurgarri biolentzia matxista jasateko erlazio batean, eta erantzuna sinple bezain beldurgarria suertatzen da: barneratuak ditugun eta inkontzienteki garatzen ditugun genero estereotipoak eta maitasun erromantikoak. Geure autoestimua eta lagun sarearen kalitatearen araberakoa izango da historiaren garapena eta ondorengo berrindartzea. Norbere gaitasunak bezain garrantzitsua da gertuko sare sendo eta presente bat izatea, eskuzabala geure maiteminarekiko, baina aldentzeko prest ez dagoena; boterea aislamenduan eta sekretuan handitzen baita.

Zergatik iraintzen, inbaditzen, bortxatzen, bakantzen, beldurtzen, jazartzen gaituzte? 12 urteko haur batek aitak amari erantzun ziola esan zuen moduan... "Ahal dudalako eta nahi dudalako".

Emakumeenganako indarkeriaren inguruan hausnartzeko egunak izan ditugu, eta isiltasunean ere geure burutxoetan sumatu zitezkeen galdera: zergatik? Zergatik hil du emaztea bere sukaldean? Zergatik ito du alaba?

Hori da emakume guztiok komunean dugun logika; maitasunak maitasuna dakarrela, ematen duguna jasotzen dugula. Eta aldi berean, logika hau da feminizi-

"Maite dugun eta aukeratu dugun horrek boterearen logika jarraitzen duela ulertzea asko kostatzen zaigu"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
URDIA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ OHARRA

Kontzezio Egunekeo jai zubia dela-eta, datorren astean ez dugu BARRENik kaleratuko. Hurrengo alea abenduaren 18an jasoko duzue.

BARREN

▶ EUSKARAREN ALDEKO MANIFESTUA

Gaur goizean kafesnea eta madalenak jaten nituen bitartean egunkaria irakurtzen ari nintzela, zera irakurri dut: "Euskararen Nazioarteko Eguna da gaurkoa". Kontxo! Zergatik existitzen da euskararen eguna?

Ia ba, hausnartu zuek ere nirekin batera.

Zergatik ospatzen da martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna? Gaur egun, arlo askotan berdintasuna lortu ez delako, ezta? Tira, kasu honetan ere antzekoa gertatzen da; euskarak ez ditu nahikoa aukera nahi beste zabaltzeko edo agian gu geu gara gutxiago erabiltzen dugunak... Ai gure euskara maitea! Horregatik, laguntza handia behar du, galtzeko arriskuan baitago. Txikia nintzenetik, askotan entzun ohi dudana esaldi bat da hau: *hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik*. Azken finean, dakigunok hitz egiten ez badugu nork hitz egingo du ba euskaraz? Bestalde, hizkuntza bat galtzea ez da hori bakarrik. Hizkuntza baten desagertzea kulturarena ere badakar berarekin, hau da, ez da hitz soil batzuen galera, belaunaldiz belaunaldi transmititutako euskal ohiturak eta bizimodua ere desagertzen dira. Nork kontatuko dizkie *Tartalo* eta *Makilakixki* ipuinak ondorengoei? Nork dantzatuko ditu fandango eta arinarinak erromerietan? Nork kantatuko du lau teilatu edozein herriko jaixetan, eta Benitoren *Maria Solt*? Sosa duenak kontatu eta poza duenak kantatu. Zer esanik ez euskal abestiek duten xarma eta haiek sorrarazten diguten harrotasuna. Beno, COVID-19 a dela-eta ezin da gehiegi kantatu ezta dantzatu ere. Badakizue, maskara ahoan eta ibili munduan, baina beti ere segurtasun distantzia mantenduz.

Goazen harira, gaur abenduak 3. Abendua hotz. Negua beti negu. Gorri edo beltz, baina negu, hotz. Horrek ez luke behar albiste. Euskarak berak gaur albistegiak zabaldu beharko ez lituzkeen bezala. Euskararen eguna, guztiek beharko luketelako. Euskaraldiaren helburua hori da hein handi batean, bi astez euskaraz hitz egiteko ohiturak berreskuratzea, aldatzea edota berriak sortzea. Esate baterako, nire osaba Osinbeltz Bilbon jaiotakoa da, eta betidanik hitz egin izan du gazteleraz, euskara ulertzen duen arren. Hori dela-eta, euskaraldiaren bigarren edizio honetan Belarriprest rola hartzea erabaki du, jendea berari euskaraz lasai zuzentzeko. Baina bihartik aurrera

dator benetako erronka, txapa kenduta, norberak bere eguneroko rola hartu beharko du, eta konpromisuari eutsi, bi aste hauetan lortutako guztia pikutara joan ez dadin eta baita euskararen etorkizuna bermatzeko ere. Ez da lan erraza izango, baina aurtun euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasako gara, egotea ez delako nahikoa egiten ez badugu. Nork bere harri-koskorra ekarriz eta ohiturak aldatuz, egoera pixkana hobetuko dugulakoan nago. Guran dago etorkizuna hobetzeko indarririk handiena, euskararen aldeko defentsarik onena erabiltzea delako. Egin dezagun gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan, maskarillaren atzean bada ere, belarriak prest eta ahoak bizi eta irrifartsu ditugula.

Elgoibar BHko Euskara Batzordeko ikasleak

GABON ZORIONTSUAK IZAN!

Urte sasoi honetan sukaldeak alaitu eta biziberritzen dira! Utzi ezazu zure sukaldeak prest egun berezi hauetarako eta saihestu ezustekoak!

/ Sukaldeko altzariak, mahaia, aulkiak, ateak...
/ Konponketa lanak, gremioak, erreformak...
/ Etxetresna elektrikoak; Labeak, plakak, indukzioak, mikrouhin labeak, ke-kanpaia, garbigailuak, hozkailuak, lehorgailuak, ontzi garbigailuak, xurgagailuak, berogailuak...



ETXEKIT

Antonio Anillaga Kalea - Elgoibar / 943 74 43 47 / @etxeKIT

Deituta zeudenen %37k hartu dute parte PCR baheketa selektiboan



Osasun Sailaren aginduz, PCR baheketa selektiboa egin zuten joan zen astean Elgoibarren. 13 eta 40 urte bitarteko herritarrak deitu zituzten probak egitera, guztira, 3.155 herritar, eta horietatik 1.170 lagunek hartu zuten parte, deitutakoen %37k. Debabarreneko ESItik emandako datuen arabera, eguenerako 720 lagunek hartu zuten txanda, eta barikurako, berriz, 450 lagunek. Baheketa selektiboak eman dituen emaitzak atzo arratsaldean ziren publiko egitekoak, Ignacio Garitano Osakidetzak pandemiaren kontrola eta jarraipena egiteko duen koordinatzaileak emandako prentsaurrekoan. Datuok eskuratu ahala, www.barren.eus webgunean argitaratuko ditugu.

Esleitu dituzte A8 autobidean panel akustikoak jartzeko lanak

Bidegiko administrazio-kontseiluak esleitu ditu Elgoibarren A-8 autobidean pantaila akustikoak jartzeko lanak. Construcciones Moyua, S.L. erakuntza enpresak aurkeztutako proiektua aukeratu dute. Moyuak 1.550.180 euroko (BEZ gabe) kostua duen proiektua aurkeztu zuen, eta zortzi hilabeteko epea izango du lanak gauzatzeko. A-8 autobideko 66,400 eta 67,300 kilometro puntuen artean jarriko dituzte panelak, Ikastola eta Institutoaren artean. Bilborako noranzkoan 866 metroko luzera izango dute, eta Donostiarakoan, berriz, 405 metrokoa. Gune horretan Sallobenteko zubibidea dago, beraz, panelak jartzeaz gain, euste sistematik eguneratuko dituzte. Panelek 2,5 metroko garaiera izango dute 66,400 kilometroaren eta biaduktuen artean eta bi metrokoa biaduktuan. Lau metroko garaiera izango dute biaduktutik 67,185 kilometro puntura arte. Obra honek Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko errepideetako zaratari aurre egiteko ekintza-planean du jatorria.

'Aniztasuna ikasgai' egitasmoa abiatu dute

Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleak, eta hainbat jatorritako haien gurasoak elkarriketatu dituzte Badihardugu elkarteko kideek, Elgoibarko ikastetxeetako aniztasuna jaso eta ezagutarazteko. Ele-aniztasunetik at, kultura eta jatorri aniztasuna ere islatu nahi dituzte. Elgoibarko Udalaren finantza-zioekin eta lankidetzarekin osatu dute lana, eta 101 ele (101L) atarira igo dituzte bideo-testigantzak (<https://101l.ahotsak.eus/>). Guztira, sei ikasleri eta lau gurasori eginiko elkarriketak jaso dituzte momentuz, bederatzita jatorritakoak. Era berean, ikasgelan aniztasuna lantzeko material pedagogikoa ere prestatu dute, eta irakasleen esku jarri Ahotsak Ikasgelan webgunean (<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/elgoibarren-aniztasuna-ikasgai>).

Urrezko ezteiak bete dituzten hiru bikote omendu dituzte

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak jubilatuta eta penstiodunen astea antolatzen du urtero azaro bukarean, Udaleko Ongizate Sailarekin elkarlanean. Aurten, baina, ezin izan dute antolatu, koronabirusaren pandemia dela-eta. Hala ere, urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omendu dituzte, eta aurten hiru izan dira. Herriko alkate Ane Beitiak eta Gizarte Ongizateko zinegotzi Blanca Larrañagak lora sorta bat eta oroigarri bana eman diete aurten urrezko ezteiak bete dituzteneri. Eta horiez gain, Elgoibarko jatetxe batean gastatzeko janaribonua ere oparitu diete.



Abenduaren 9an jarriko dituzte salgai Eguberrietako bertso saiorako sarrerak

Bertso saio literarioa antolatu du aurten Elgoibarko Izarrak Eguberrietarako. Lau bertsolarik hartuko dute parte saioan: Nerea Ibartzabal, Miren Amuriza, Unai Iturrriaga eta Uxue Alberdik. Bertsolariekin batera, Aitor Nova musikariak ere hartuko du parte ekitaldian. Abenduaren 29an izango da, 19:00etan, Herriko Antzokian. Abenduaren 9an jarriko dituzte sarrerak salgai 11 euroan (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 10 euro). Interesatuak bi modu dituzte sarrerak erosteko: Elgoibarko Izarraren bulegoan (Aita Agirre 3, 3. solairua), 9:00etatik 15:00etara edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzita.



Hilaren 10era arte eman daiteke izena ElgoibarKlik plataforman

Elgoibarklik Elgoibarko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresa guztiak bateratuko dituen plataforma digital bat izango da; erakusleho bat, alegia. Interesatuak abenduaren 10era arte izango dute izena emateko aukera. Plataforma digital honetan, enpresen informazioa erakustez gain, sail bat izango da online edo whatsapp bidez salerosketak egin ahal izateko. Izena emateko txankakua.elkarte@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da. Zalantzak argitzeko 943 747 301 telefonora deitu daiteke.

2021erako ordenantza fiskaletan aldaketak onartu ditu Mendaroko udalbatzak

Ordenantza fiskaletan aldaketak egitea onartu ditu Mendaroko Udalbatzak, EH Bilduk proposatuta eta PSE-EEK babestuta. Udalbatzak aho batez onartu zituen famili ugarien inguruan proposatutako neurriak, EAJ, EH Bildu eta PSE alderdien aldeko botoarekin. Mendaroko EH Bilduk jakitera eman duenez, familia ugariak hobaria izango dituzte urteko kontribuzioa (Ondasun Higiezinen Gaietako Zerga) eta ibilgailuaren zerga (Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaietako Zerga) ordaintzeko. Hobari horiek seme-alaba kopuruaren arabera eta diru-sarreraren arabera modu progresiboan aplikatuko dira. "Hau horrela, adibidez, hiru seme-alaba izanik urtean 24.000 €tik beherako diru sarrera gordinak dituztenek %90eko hobaria izango dute. Bigarren tramoan, urtean 50.000 € arteko diru-sarrera gordinak dituztenek %50eko hobaria izango dute, eta azkenik, urtean 90.000 € arteko irabazi gordinak dituztenek %15ekoa", azaldu dute. Ibilgailuetan aldiz, tramoak berdina izango dira, baina hobaria %40, %30 eta %20koa izango dira. Bestalde, 1990etik aurrera eraikitako etxebizitza hutsek %50eko erreklamo izango dute kontribuzioan, EH Bilduk proposatutako neurriak PSE-EEren aldeko botoa jaso eta gero. Bi neurriak Mendaroko bizitza soziokomunitarioa biziberritzeko pentsatutako neurriak direla azpimarratu dute EH Bildutik.

'Ekonomia zirkularra modelatuz' izeneko eskulturen lehiaketan hartu dute parte Mekako ikasleek 'Loretxo' lanarekin

Ekonomia Zirkularren filosofia Gipuzkoako lanbideziketako ikastetxeetako ikasleengan zabaltzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak *Ekonomia zirkularra modelatuz* izeneko eskulturen lehiaketaren bigarren edizioa antolatu du. Sei ikastetxek parte hartu dute lehiaketan, tartean Elgoibarko Meka Lanbide Eskolak. Mekako autozoiako 1AU3 eta karrozeriako 2KA2ko ikasleek *Loretxo* izeneko eskultura diseinatu eta aurkeztu zuten lehiaketara. Parte hartu duten ikastetxe guztiak saritu dituzte 1.500 euroko sariarekin, eta joan den hilaren 27an egin zuten sari banaketa ekitaldia.



Murrizketen kontrako manifestaziora deitu ditu herritarrak Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak

Murrizketen kontrako manifestazioa antolatu dute biharko, eta Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak eta duintasuna elkartek herritarrei dei egin diete parte hartzera. 12:00etan hasiko da, Kalegoen plazan. Pentsurrekoa eskaini zuten taldeko ki-deek eguaztenean, eta lehenik eta behin eskerrak eman zizkieten ELA, LAB, Narrutsik, Ernai, Senideak eta San Lazaroko langileei Euskal Herriko gutun soziala sinatzeagatik. Era berean, aipatu zuten orain dela hiru urte hasi zirela mobilizazioekin, eta horri esker pentsioen igoeran KPI aplikatzea lortu dutela. Hala ere, ez dela nahikoa esan zuten, eta Europako Gutun Sozialak gomendatzen duen 1.200 euroko gutxi-neko soldata exijitu zuten. Azkenik, pentsio duinen aldeko borroka, "gizarte borroka" dela azpimarratu zuten, eta horregatik, gizarte osoari egin diete dei mobilizazioetan parte hartzera.



2021eko egutegia aurkeztu du Elgoibarko Udalak



Eguaztenean aurkeztu zuen Elgoibarko Udalak 2021erako egutegia, eta aurkezpen ekitaldian bertan banatu zituzten sariak. Koronabirusaren ondorioz, bi zatitan egin zuten ekitaldia: batetik, marrazki lehiaketako sariak banatu zituzten, eta bestetik, argazki lehiaketakoak. Aurtengo lehiaketaren gaia *irudi bat bazterketatik berdintasunera* izan da. Marrazki lehiaketan lkas-tolako eta Herri Eskolako LH5eko 124 ikaslek hartu dute parte, eta argazki lehiaketan, berriz, 17 herritarrak (sei emakumezkoak eta 11 gizonezkoak). Hilabete bakoitzeko orrialdean argazki eta marrazki bat agertuko dira. Udalak 7.000 egutegi txiki argitaratu ditu herriko telefono interesgarriekin, eta herriko postontzietan banatuko ditu. Egutegi handiak, berriz, 3.500 kaleratu dituzte, eta aurren, Aita Agirre kulturguneko sarreran hartu beharko dira.

Olentzero eta Mari Domingiren bideoa egin du Atxutxiamaikak

Atxutxiamaikako lantaldeak Olentzero eta Mari Domingiren bideoa egin du Udalaren eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolarekin laguntzaz. Abenduaren 8tik aurrera zabalduko dute Elgoibarko Izarraren webgunean eta sare sozialetan, eta *barren.eus* atarian ere egongo da bideoa ikusteko aukera. Horrez gain, Olentzero eta Mari Domingiri gutunak idazteko helbide elektronikoa bat sortu dute, eta jasotako mezuzak erantzungo dituzte: *olentzero-etamariomingi@ni.eus*. Era berean, postontzia jarriko dute Aita Agirreko sarreran abenduaren 21etik 24ra, gutunak bidaltzeko.



Arg.: Jairo Berbel



“Euskarak eman dit Euskal Herriarekiko maitasuna”

▶ REYES PRADOS

KAZETARIA ETA TELEBISTAKO AURKEZLEA

Reyes Prados (Sevilla, 1982) orain dela 15 bat urte iritsi zen Euskal Herrira, euskaraz eta euskaldunez ezer gutxi zekiela. Bilbon hasi zen lanean, hiru hilabeterako kontratu batekin, epe hori amaitu ostean berriz ere Sevillara itzultzeko asmoz. Baina Sevillara itzuli beharrean, Elgoibarrera etorri zen bizitzera orain dela lau urte. Gaur, Ahobizi txapa soinean, eta euskara ahoan, bizi da.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Noiz eta nola hartu zenuen Sevillatik Euskal Herrirako bidea?

23 urte nituen orduan, eta ez zen erabaki erraza izan, baina aukera berriak probatzeko asmoz etorri nintzen. Ordura arte beti Sevillan bizi izan nintzen. Han jaio nintzen, ikasketak ere han egin nituen, lanean ere han aritu nintzen... Hiru hilabeterako lan kontratua eskaini zidaten eta asmo horrekin etorri nintzen. 14 urte geroago, hemen jarraitzen dut.

◆ Euskal Herrira iritsi zinenean, zer zenekien Euskal Herriaz, euskaraz eta euskaldunez?

Nik banekien Euskadi edo País Vasco hor zegoela, Espainiako iparraldean, baina euskarari buruz ez nekien ezer. Getxon bizitzen jarri nintzen, eta han ez zegoen euskal giro handiegirik, eta ni, gainera, ez nengoen euskal giroan murgilduta. Orduan erdalduna nintzen, eta erdal giroan mugitzen nintzen. Poliki-poliki hasi zitzaidan pizten euskararekiko interesa. Kalean ‘agur’ entzuten nuen, eta pentsatu nuen hori izango zela ‘adiós’. Eta horrela hasi nintzen bati zein besteari galdetuz euskara ikasten, baina berehala konturatu nintzen hori ez zela nahikoa hizkuntza ikasteko, eta euskaltegian eman nuen izena. Esan zidaten euskara oso zaila zela, baina nik saiatu nahi nuen.

◆ Euskararen topiko tipikoa: ‘Euskara oso zaila da’.

Bai, zaila da, bereziki ez daukalako gaztelaniarekin zerikusirik. 30 urterekin hasi nintzen eta hasiera gogorra egin zitzaidan. Baina nik saiatu nahi nuen, eta lortu dut euskaraz hitz egitea. Oraindik asko daukat ikasteko, akats asko egiten ditut, baina jendeak ulertzen dit, eta hori asko da niretzat. 9 hilabetez aritu nin-

tzen euskaltegian, bost orduz egunero. Baina hala ere, telebista edo irratia pizten nituenean ez nuen ezer ulertzen, eta konturatu nintzen entzumen gehiago landu behar nuela. Lagun batekin hitz egin nuen eta esan zidan ezagutzen zuela baserrian hartuko ninduen familia bat. Errezilgo baserri batera joan nintzen, apur bat beldurtuta, baina aldi berean, pozik. Oso gustura egon nintzen, pila bat ikasi nuen eta oraindik ere oso harreman ona daukat beraienekin. Hori izan zen hartu nuen erabakirik egokiena.

◆ **Euskara ikasi duzuetik esango zenuke Euskal Herria beste modu batean ikusten duzula?**

Bai, zalantzarik gabe. Euskara ikasi dudanetik konturatu naiz herria eta hizkuntza erabat lotuta daudela. Zoragarria da. Niri izugarri gustatzen zaizkit hizkuntzak, eta, bereziki euskara, oso hizkuntza berezia delako. Susmoa neukan zerbait galtzen ari nintzela, eta zerbait hori zen hizkuntza; guztiaren oinarria. Nahiz eta gutxi hitz egin edo gaizki hitz egin, euskararekin oinarria badaukazu, eta horrekin gainerako guztia hobeto ulertzen da.

◆ **Hizkuntzak gustuko dituzula esan duzu. Esango zenuke hizkuntzak ikasteko erraztasuna duzula?**

Hori esaten didate, baina ez dakit erraztasuna den edo jakinmina. Nik hitz egiten ditut gaztelania, nire ama hizkuntza, euskara, ingelesa eta frantsesa. Beste hizkuntza batzuk ere ezagutzen ditut, baina ez nuke esango aparteko erraztasunik dudanik, ikasteko gogoia baizik.

◆ **Euskarak bezala, gaztelaniak ere baditu bere topikoak, eta bat da andaluziarren azentua ez dela oharkabean pasatzen. Zuri, baina, ez zaizu azentua igartzen.**

“Susmoa neukan zerbait galtzen ari nintzela, eta zerbait hori zen hizkuntza; guztiaren oinarria”

Euskaraz hitz egiten dudanean ez zait nabaritzen, eta telebistan aurkezle lanetan aritzen naizenean ere saiatzen naiz azentua neutralizatzen, baina bestela, kalean, lagun giroan jatorrizko azentua

ateratzen dut, eta sebillar peto-petoa naizela igartzen zait berehala. Ez dut galdu nahi, gainera! Azentu hori nire jatorrizko azentua da, eta betiko gordeko dut.

◆ **Zer eman dizu euskarak?**

Gauza asko. Batetik, hizkuntza berri bat ezagutzeko aukera eman dit, eta hori bada zerbait. Hizkuntza da herri honen oinarria eta niri euskarak eman dit Euskal Herriarekiko maitasuna. Jatorriz ez naiz Euskal Herrikoa, baina orain hemen bizi naiz, eta euskara ikasten hasi nintzenetik maitasun hori handituz joan da.

◆ **Euskara ikasi duzu, eta euskaraz lan egiten ari zara orain.**

Bai, eta hori niretzat sekulako erronka izan da. Euskaltegian euskara batua irakasten dute, eta hori da benetan hizkuntza honen oinarria, euskara baturik gabe zaila delako hizkuntza arautzea, baina konturatzen nintzen jendeak kalean desberdin hitz egiten zuela, eta hori ez zela ni ikasten ari nintzena. Baserriko egonaldia lagundu zidan euskalkien mundua ezagutzen, eta nolabait nire euskalki propioa sortzen. Eta hortik euskaraz lan egiten hastera beste pauso garrantzitsu bat eman nuen. Orain ETB1erako programa berri batean ari naiz lanean, eta euskalki desberdinak hitz egiten dituen jendearekin egoten naiz harremanetan. Egon naiz gernikar batzuekin, Zuberoko beste batzuekin... Sevilakoa izanik, zuberor batekin euskaraz hitz egin ahal izatea niretzat mundiala da. Horretarako batua jakitea beharrezkoa da.





◆ **Ahobizi txapa duzu soinean. Zer moduz ari zara zure rola betetzen?**

Aurreko edizioan Belarriprest izan nintzen, eta orain, aldatzea erabaki dut. Belarriprest banaiz, baina Ahobizi ere bai, eta gero eta gehiago, gainera. Gustura ari naiz parte hartzen. Horrelako ariketak beharrezkoak dira jendea kontzientziatzeko; lortu behar dugu jendea animatzea euskaraz hitz egin dezan. Ni konturatu naiz Euskal Herriko jende asko ez dela ausartzen euskaraz hitz egiten, eta ez dut ulertzen arrazoia. Ez dakit lotsagatik den edo hanka-sartzeko beldurragatik, baina pena ematen dit. Euskara zoragarria da, eta nahiz eta gutxi jakin, nik jendea animatu nahi dut hitz egitera. Uste dut horrelako ariketekin jendea gehiago animatzen dela euskaraz hitz egitera. Nik neuk hankasartze asko egiten ditut, eta eskertzen dut euskaldun zaharrek zuzentzea. Beste batzuei agian ez zaie hori gustatzen, baina nire ustez ikasteko oso garrantzitsua da norbaitek akatsak zuzentzea.

◆ **Zure egunerokotasunean, euskaraz bizi zara?**

Nire bikotekidearekin saiatzen naiz euskaraz hitz egiten, baina batzuetan gaztelaniaz egiten diot, haserretzen naizenean, bereziki. Zorionez, ez da ohikoa izaten, eskerrak! Lanean ere tarteka erabiltzen dugu gaztelania, baina euskara da nagusi. Elkarrizketak euskaraz egiten ditugu, eta edizio guztia ere bai. Oso pozik nago. Nork esan behar zidan niri orain dela 10 urte ETB1erako lanean arituko nintzela!

◆ **Eta, nola iritsi zinen Elgoibarrera?**

“Orain dela lau bat urte iritsi nintzen Elgoibarrera, eta oso pozik bizi naiz hemen”

Getxon bizitzen nengoela eza-gutu nuen nire bikotekidea, eta bera Elgoibarkoa denez, hemen bukatu nuen nik ere. Orain dela lau bat urte edo etorri nintzen Elgoibarrera, eta egia esan, oso pozik bizi naiz. Ez dauka zerikusirik Sevillarekin, baina herri aproposa da Elgoibar. Denetik dago, ez da herri txiki-txiki bat. Herriko giroa gustatzen zait, eta ingurua bereziki. Lasai bizi naiz, egia esanda. Hemengo jendea ez da Andaluziakoa modukoa. Ez dakit lotsatiagoa den edo errespetu gehiago daukan, baina jendea ez zait asko gerturatzten. Batzuetan nabaritzen dut jendea begira, eza-gutzen nautela konturatzen naiz, baina besterik ez. Dena dela, niri ez zait inporta jendea niregana etortzea. Momentuz, oso gustura nago hemen eta ez daukat Sevillara itzultzeko asmorik. Faltan botatzen ditut gauza asko, eta tarteka joaten naiz, jakina. Han dago nire familia, eta Sevilla futbol taldearen jarraitzaile sutsua ere banaiz, eta gustatzen zait taldearen partidak ikustera joatea. Nire aitona oparitu zidan klubeko txartela jaiotzean, eta bihotzean daramat. Euskal talderen baten kontra jokatzeko duenean ere saiatzen naiz partida ikustera joaten.

◆ **Euskara ikasteko pausoa eman nahian dagoenari, zer esango zenioke?**

Ausartzeko! Lotsa alde batera utzi eta ausartu egin behar da euskararen aldeko pausoa ematera. Ez da ezer pasatzen hanka sartzen bada. Nik neuk askotan egiten ditut akatsak, eta batzuetan ni neu konturatzen naiz, baina bestela ere, ez da ezer pasatzen. Elkar ulertzea da garrantzitsua.

Olentzeroren zakua Elgoibarren!

Erosi herrian, bizirik jarrai dezan!

Gehigarri honetan aurkituko dituzun boletoekin deskontuak eskuratuko dituzu, **abenduaren 4tik 17ra** arte. Erosketa bakoitzeko boleto bakarra erabili daiteke, eta ezin zaizkie bestelako deskontuei gehitu.



Tiket hau aurkeztuta **%10**eko deskontua izango duzu berokietan.

Tokiko merkataritzan eta ostalaritzan kontsumitzea inbertitzea da!



Auzoko dendetan kontsumitzea formula egokia da tokiko berreskurapena bultzatzeko. Gure auzoko dendetan inbertitzen dugun diruak zirkulatzen jarraitzen du, gure inguruko oparotasun ekonomikoari laguntzen. Onura hori gure mesederako da, hurbileko pertsonak eta familiek jasotzen dutelako. Gure ongizate-egoera eta bizikaltatea nabarmen haziko dira kontsumoa aktibatzean, tokiko dendetan erostea inbertitzea baita.

Agurtzane ilcapaindegia
Santa Ana, 18 - 943 741 864

1	XANPUA (200ml) - EGOKITZAILERA (200ml) - TRATAMENDUA (200ml)	13,90 €	97,50 €	-40%
2	OTARI COB 180 oil botelara	13,90 €	107,50 €	-30%
3	XANPUA (100ml) - TRATAMENDUA (200g)	11,90 €	85 €	-30%
4	XANPUA (100ml) - EGOKITZAILERA (200g)	11,90 €	51,20 €	-30%

LAGUNAK colchasserie textil hogar
Mila esker zuen konfiantzagatik!

Sukalderako eta jangelarako mahal eta aulki aukera zabala! Etorri eta ikus itzazu.



San Roke kalea, 20 - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

Sara
Rosario, 14 - 943 743 555

Moztu eta ekarri tiketa!
Dendan egindako edozein erosketatan
%10eko deskontua lortuko duzu.



ARAMBURU BITXIDENDA
San Frantzisko, 26
943 742 535
Erosi zure oparia Aramburu bitxidendan eta **250€**ko bi baleren zozketan parte hartuko duzu.

G & MSan Bartolome, 21
943 033 476

Tiket hau ekarriz gero,
%20ko deskontua lortuko duzu
ICHI etxeko arropa eta zapatatetan.

Leire
ileapaindegia
peluqueria

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10

Abenduan
ileapaindegira
etortzen zareten
guztion artean
saski hau
zozketatuko dugu.

943 256 105


PITZINTXU.com
San Frantzisko, 27
645 788 492

Biba etxeko poltsetan
%15eko deskontua
lortuko duzu
tiket hau ekarriz gero.

O**OLAIA
MARTINEZ**
ESTETIKA ZENTROA

Tiket hau ekarriz gero, abenduan zehar,
manikura erdiiraunkorrean eta
oparitzeko edertasun kaxetan
%10eko deskontua lortuko duzu.

Trenbide kalea, 21, behea, ezkerria
943 242 805

Topaguneak



Tokiko negoziotako harremanek
auzoen arteko harremanak sendotzen
dituzte, eta herritarrentzako in-
formazioa jaso eta zabaltzeko gune,
topaleku eta solasaldi bihurtzen di-
tuzte; izan ere, dendara jaitea edo
kafe bat hartzera jaitea beti da au-
kera egokia auzoan gertatzen ari de-
naren berri izateko. Adineko
pertsonegan eragin handia dau-
kate, merkataria eta ostalariekin har-
reman zuzena eta familiarra izatea
eskertzen baitute.

**IRIA**

Tiket hau aurkeztuta
%10eko
deskontua izango duzu
berokietan.

GYS SPORT CASA EL GOIBAR
ASTIGARRAGA

Txartel hau
ekarriz gero
%20ko
deskontua
lortuko duzu
!SOLID
etxeko
edozein
arropatan.

**!SOLID**Errosario, 18 - 943 743 268
Errosario, 21, behea - 943 744 386**Maria Urizar**
IleapaindegiaSan Bartolome 15, behea - 943 744 489
maria.urizar@hotmail.com**35€**

Gabon hauetan, ilerako tratamendua oparitu!
Ilearen kalitatearen azterketa
+
Garbiketa
+
Tratamendu pertsonalizatua
+
Orrazkera

Kala
LORADENDASan Frantzisko, 24
943 744 516
kals.loradenda@gmail.com

Besarkatu ezinda ere beti izango dugu
Gabonetan loreak oparitzeko aukera.

Kerrena
belar denda 1

San Bartolome, 7 943 744 031



Ekarri tiketa eta hazi eta landare aromatikoekoa kuxin termofasaigarrietan
%15eko deskontua lortuko duzu,
Erregina-jelean ere **%10**eko deskontua izango duzu.

ecenarro
LENTZERIA

Mila esker aurten ere gure ondoan egoteagatik, zuek gabe gure lanak ez du zentzurik.
Gabon zoriotsuak guztioi!



San Frantzisko, 10
943 742 619

Arauri
San Bartolome, 6
943 741 789 / 688 743 452

ZOKETA

- Aurpegi tratamendua
- Manikura erdihaunkorts
- Neguroko esku-lanak eta bufanda

Guk ere banatuko ditugu opariak
Bere txartel hau eta gure sasketan parte hartuko dazara!

Izen-abizenak: _____
Telefonoa: _____

IRIONDO
KIROLAK

HERNAN KALEA 10 ALBARRAN KIROK, MOZA, BILBAO



Haur eta gazteentzako patineterik onenak

Konpromisoa

.....

Herriko saltoki txikietan eta ostalaritzan kontsumitzea aukera bat da. Erosketak egitea gure eguneroko jardueretako bat da, eta herritarrok gizarte-aldaketarako funtsezko tresna bat dugu eskura: kontsumoa. Kontsumitzaile garen aldetik, erantzukizuna dugu, baina boterea ere badugu, ekonomiaren eta munduaren bidean zuzenean eragin dezakegu. Gure usteen arabera, gure erabakirizpidea erabiltzeko eta jasangarritasunaren eraikuntza sustatzeko aukera dugu, gure erosketa-ereduen bidez. Beraz, **EROSI DEZAGUN HERRIAN, MANTENDU DEZAGUN HERRIA BIZIRIK!**

Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO

HITZORDUA BEHARREZKOA DA

HEPA iragazkiak dituen AIRE-ARAZGAILUA duen lokala.

Ilea zaintzeko **KERASTASE** eta **L'OREAL** tratamenduak.

Informazio gehiago:
www.peluqueriajoseantonio.com



Errosario kalea, 30
943 741 492

GARATE
AUFERREKALDE

943 741 129 - 688 867 348



Ekarri txartel hau zure datuekin eta **abenduaren 24an 300 €**ko bale baten zozketan parte hartuko duzu.

Izen-abizenak: _____
Telefonoa: _____

Aurten abenduaren 9tik 24ra bitartean erositako gure opari bonoak deskontua izango dute, animatu zaitezte edertasuna oparizera!

Ritualak opari-bonoak
Aurpegi tratamendu bono orokorrak
Gorputz tratamendu opari-bonoak
Kosmetika kaxak

Cristina Garcia
Errosario kalea, 19
943 742 950

 cristina.garcia.es/ritual



KARKIZANO

Abenduak 7tik 12ra Puntu Blanco galtzerdiak **%10**eko deskontua





▶ AMAIA GOIKOETXEA

MEDIKUA, ELGOIBARKO ANBULATORIOAN

Amaia Goikoetxea (Azpeitia, 1960) familia-medikua da eta azkeneko hamabi bat urtean Elgoibarko anbulatorioan pasatzen du kontsulta. Pandemia dela-eta Elgoibarko anbulatorioan hartu diren neurriez hitz egin dugu berarekin, bai eta zentroko langileen lan-baldintzez eta haien egiteko moduez ere. Pandemia egoeran lan-karga izugarri handitu zaiela esan du Goikoetxeak, eta martxotik urrira bitartean gainezka jardun direla sarri, anbulatorioan lehendik zituzten gabezi batzuei pilatu zaielako lan-karga handitze hori. Herritarren kekekiko ulerker agertu da Goikoetxea, eta lasaitasuna eta osasun sistemako langileengan konfiantza izateko eskatu die herritarrei.

- AINARA ARGOTIA -

“Hemen, zazpiren lana egiten aritu gara hiru-lau mediku oraintsu arte”

♦ **Koronabirusaren pandemiagatik anbulatorioetako zerbitzuak egokitu egin behar izan zituzten martxoan. Nola ari zarete orain?**

Telefono bidezko kontsultak ematen ari gara gehienbat, ikusten duzun bezala lekuak ez duelako ematen. Eraikin hau eskasenetako bat da. Espazio txikia eta estua da hau, distantziak eta edukiera-kontuak zaindu behar ditugu, eta honek ez du ematen gehiagorako. Hala ere, jendeak ez dezala pentsa aurrez aurre ikusten ez ditugunik pazienteak. Gertatzen dena da triaje guztia [zaintza behar handiagoa dutenak aukeratzeko eta sailkatzeko metodoa] telefonoz egiten ari garela. Hau da, lehenengo harremana telefonoz egiten dugu pazientearekin, eta gero, guk, medikuek, erabakitzen dugu zein daukagun aurrez aurre ikusi beharra eta zeini lagundu ahal diogun telefonoz. Lan-karga, baina, izugarri handitu zaigu pandemia hasi zenetik.

Zienta bat dei jasotzen ditugu egunero eta zazpi orduko lan-jardunak ez digu denerako ematen. Berez, 9:00etatik 10:00etara eta 12:00etatik 13:00etarako tarteak dauzkagu jendea ikusteko goizez ari garenek, eta gainerako orduetan kontsulta telefonikoak eta administratiboak egiten ditugu, asko ugaritu direlako. Bakoitzak, baina, ahal duen moduan administratzen du bere denbora. Nik neuk, esaterako, 8:00etatik 15:00ak arteko lan-jarduna daukat, baina lehenengo orduan jendeari deika hasten banaiz, inor ez dut harrapatzen, txanda ordu horretarako emanda egon arren. Horregatik, eguneko lehen ordu hori historiak begiratzeko edota burokrazia lanak egiteko baliatzen dut.

♦ **Anbulatorioan telefonoa hartzen dutenak langile administratiboak dira. Gainditu beharreko lehenengo kontua hori dela uste dute herritarrek.**

Medikuarekin egon nahi duela esanez deitzen du pazientek eta harrerakoak zertarako behar duen galdetzen dio. Ziurrenik pazientek ez dizkio azalpen denak emango, ez dizkio eman nahiko beharbada, baina administratzaileak urgentea den galdetuko dio eta haren arabera emango dio txanda hurrengo egunerako, bi egun barrurako edo dena denerako. Orain, nahiko ondo ari gara txandak ematen, baina udan kaosa izan zen hau, oso mediku gutxi geundelako hemen eta ezin iritsita jardun ginelako lanean, presio handiarekin. Baina, orain, normalean telefono bidezko kontsulta behintzat, biharamunerako ari gara ematen, urgentea ez den kasuetan. Urgentea bada, egunean bertan deitzen diogu medikuok gaixoari edo joaten gatazko etxera, premiazkoa ikusiz gero. Egia da, hala ere, jende bat kexatzen zaigula esanez hamar aldiz deitu behar izaten duela anbulatoriora txanda hartu ahal izateko. Gehienbat horrekin kexatzen da orain jendea, eta hori, jende ugari dagoela telefonoa hartzen.

“Egia da jende bat kexatzen zaigula esanez hamar aldiz deitu behar izaten duela anbulatoriora txanda hartzeko”

◆ **‘Koronabirusaren sintomak dituzula esanez deituz gero, arreta berehalakoa da, bestela...’, entzun izan diogu bati baino gehiagori kalean.**

Ez nago konforme. Koronabirusa ez diren gaitan ere arreta ahal bezain berehalakoa da. Atzo bertan ohetik mugitu ezinda zegoela esanez deitu zidan emakume batek eta etxera joan nintzaion ikustera. Badaude koronabirusa ez diren gaitzak eta esan beharrik ez dago artatzen ditugula bestelako gaixoak ere. Baina koronabirusaren kontu honekin topera dauzkagu agendak. Koronabirusaren sintometako batzuk oso ohikoak dira urte-saso honetan, eta dei asko jasotzen ditugu, normala den bezala. Horren harira esan behar dut erizainek izugarri laguntzen digutela, beraiek bideratzen dituztelako orain sintomekin deitzen duten guztiak PCR probak edo antigenu probak egi-tera. Lehen, guk hartzen genituen horiek denak, baina ezinezkoa zitzaigun. Bestetik, egia da positibo kasuak ere nahi baino gehiago direla oraindik, behera egin duten arren, eta horiei jarraipena egin behar zaiela. Eguneko, lau-bost koronabirus kasu izaten ari ginen anbulatorio honetako medikuak. Jaitsi dira positibo kasuak momentuan, baina positibo guztiei bi egunetik behin deitu behar zaie gutxienez, eta horri tramtatu behar izaten ditugun baja nahiz alta paper guztiak eta bete beharreko txosten guztiak gehitu behar zaizkio. Kontu-



ratu gara burokrasia kontuetan denbora asko ari garela galdetzen. Paper-jira asko egin behar izaten ditugu, gehiegi. COVID-19ak sortu duen egonezia ere handia da eta hori ere kudeatu behar da.

◆ **Zer esan nahi duzu horrekin?**

Herritarrak urduriago daudela, oldarkorrako, eta hori ere igartzen dugula. Egoerak eragindako zerbait da hori, nik uste, baina egia da erantzun txarrak egunero jasotzen ditugula. Baretuko da giroa, baina garbi daukat lehengora ez garela sekula itzuliko, eta lasai hartzea dagokigula guztioi.

♦ **Zuen eguneko lan-jardunetik zenbat kentzen dizuete burokrazia kontuek?**

Kontsulthen heren bat bai behintzat.

♦ **Uda gogorra izan zenutela esan duzu. Zergatik?**

Udan oso-oso gaizki egon ginen hemen. Dena zen telefono-deia eta hiru-lau langile egon ginen hemen zazpi lagun lan egiten. Gainezka aritu ginen lanean. Egunean bederatzi orduz egiten genuen lan, eta eguneko lanak bukatu gabe joaten ginen etxera, horrek sortzen zigun egonezin guztiarekin. Orduan dei guztiak koronabirusari lotutakoak ziren. Bazirudien ez zegoela beste gauzarik. Etortzeko ere ezin genien esan ezinbestekoa izan ezean eta okerren zeudenak Mendarora bideratzen aritu ginen gehienbat. Kontsulta prezientzialik ia ez zegoen orduan. Orain, egun batzuetan gehiago ere bai, baina batez beste egunean zortzi bat paziente ari gara ikusten anbulatorioan. Espazio honek ez du askoz gehiagorako ematen. Begira, solairu honetan bertan lau medikuk dauzkagu kontsultak, eta gehienez hamar lagun egon daitezke, aforo kontuengatik. Distantziak gorde nahi badira, ez dago hemen gehiagorentzako lekurik.

♦ **Murrizketarik ez zela izan esan ziguten orduan Debarrenako Erakunde Sanitariotik (ESI), baizik eta egokitu egin behar izan zituztela anbulatorioetako zerbitzuak, koronabirusaren pandemiagatik. Zer diozu?**

Egokitzapen batzuk egin ziren, bai, baina murrizketak egon dira eta hori ezin da ukatu. Elgoibarko anbulatorioan hiru lankide izan ditugu bajan denbora luzez, eta ez dute haien ordezkorik ekarri. Geuk bete behar izan dugu haien lana ere, ahal bezala. Udan, mediku bakoitzak bi kupo [mediku bakoitzak bere zaintzapean duen paziente kopuruari esaten zaio kupoa] osatu ditu hemen. Konfinatu beharra ere izan dugu, lankideak ere kutsatu zaizkigulako anbulatorioan lanean ari zirela, eta halakoetan, bistakoa denez, lanean zeudenei pilatu zaie lana, lehenaz gainera. Mendaron ere mobilizatu zen jendea hango anbulatorioko medikuak hona etorri behar izan zuelako, hura lagata. Eromena izan zen. Kondizio txarretan egon gara hemen urria erdialdera arte. Iruditzen zait osasun sistema publiko ona daukagula, baina gauza asko daudela zuzendu beharrekoak eta baliabide pertsonalak ere jarri behar direla.

♦ **Zenbateko kupoak dituzue?**

Mediku bakoitzeko 1.500 paziente inguru ditugu. Normala hori da. Pentsa zer den paziente kopurua bikoiztea, eta are gehiago pandemia egoera batean. Orain, hobeto gaude, egon beharko ginatkeen denok gaudelako teoriarik.

♦ **Garai batean 17:00etatik biharamuneko 8:00ak arteko zerbitzua ematen zuten Elgoibarren. Gauerdira arte mugatu zuten gero, eta martxoan, Etengabeko Arreta Gunea (urgentziak, 17:00etatik atzerakoa) itxi zuten. Zerbitzua-ren eskaste bat ikusten dute hor herritar batzuek. Zer duzu esateko?**

Zerbitzuak kentzea beti dela txarra.

“Jakina kontsulta birtualek mugak dituztela eta horregatik guk inori ez diogu esaten aurrez aurre ikusiko ez dugunik”

♦ **Telefono bidezko kontsultekin ere ez dira denak gusturaba.**

Martxoan, ohiko kontrolak, analisiak eta abarrak egiteari utzi genion, momentu hartan bazirelako behar handiagoak. Espezialistek ere laga zioten kontsultak pasatzeari eta ebakuntzak ere bertan behera utzi zituzten. Lehentasunak ezarri ziren. COVID-19ak dena estali zuen nolabait esatearren, eta jabetu gara gauza askotan hanka sartu dugula. Egoera hura ez zen inorentzat erraza. Zenbatetan joan ote garen etxera, pentsatuz ‘halako hau aurrez aurre ikusi beharko nukeen ba’, baina ezin zen. Paziente asko ezagutzen ditugu eta urteetan halako konfiantza modukoa lortu dugu. Horiakin errazagoa da telefono bidezko komunikazioa ere, errazago zabalitzen direlako eta geuk ere badugulako haien informazio bat aurrez.

♦ **Pentsiodunen mugimendutik-eta ohartarazi izan dute adineko asko galduta sentitzen direla telefono bidezko kontsultetan.**

Bai, gertatzen da. Telefonoz igartzen diezu ez direla ondo azaltzen, hotza egiten zaiela telefonoa komunikaziorako, baina halakoetan etortzeko esaten diegu beti. Egon lasai ezin hori dutenak beti atenditzen ditugulako aurrez aurre. Halakoetarako ez daukagu guk inolako eragozpenik. Lehen baino jende gutxiago ikusten dugula aurrez aurre? Bai, jakina. Hori bai, lehenengo hartueman hori telefonoz egin behar da. Herritarrei esango nieke ahalegin bat egiteko egoera zein den ulertzeko. Guk ere ikusten dugu luzatzen ari direla gauza asko. Espezialistak ez daude lehen beste kontsulta pasatzen, eta belauneko ebakuntza egiteko lehen hiru hilabete itxaron behar zituenak orain zortzi bat itxaron beharko ditu. Atentzioa aldatu da, halabeharrez.

♦ **Herritarren haserrea aipatu dugu, baina osasun sistema publikoko langileok ere egin dituzue mobilizazioak. Zer eskatzen duzue?**

Bai, osasun sistema publikoan mobilizatu gara, eta batez ere lehen arretako zerbitzuetan. Zer esango dizut? Bajan dau den langileak ordezkatzeko eskatzen dugu. Goitik esaten digute ez dagoela ordezkorik, baina bestetik ingurukoek esaten digute kontratazio baldintzak ere ez direla onenak, eta hori hala izanda, garbi dugu nekez lortuko dituztela ordezkoak. Badakigu mediku gutxi daudela eta orain medikuntza bukatzen duen batek segurtatuta duela lana, baina jakina, lan-bal-

dintza duinetan lan egiteko aukera eskaintzen ez bazaie, nekez erakarriko dituzte osasun sistema publikora. Planifikazio egokirik ere ez dut uste egiten duenik Osakidetzak. Guk, esaterako, aurretiaz zehazten diegu noiz hartu nahiko genituzkeen opor-egunak-eta, eta hobeto antolatuko balira, ziurtatu ahal izango lituzkete ordezkoak, baina prebisorik ez dute egiten eta beti harrapatzen ditu zezenak. Zer gertatzen da? Guk egin, egiten dugula, eta ezkutuan gelditzen dela hori dena. Geuk planto egin artekoa da, baina gaixoekin ari gara lanean eta planto egitea ere ez pentsa erraza denik. Hemen, esate baterako, Lehen Arretako Unitateko arduradunik gabe gaude orai, eta eskaerak gora bideratzeko ere, geure artean ibiltzen gara nork egingo duen galdezka.

◆ **Eta arazo horiek zer dira, pandemiak geroztikoak?**

Ez, ez. Pandemiak egin duena da aurretik zeuden arazoak begien bistan jarri. Atzeragotik datoz kontu asko.

◆ **Mikel Baza familia medikuak BERRIAN zioen kontsulta birtualek muga handiak dituztela. Badirela kontsulta sakratuak, "emozioak loratzen dituzten kontsultak".**

Bai, jakina kontsulta birtualak mugak dituztela eta horregatik guk inori ez diogu esaten aurrez aurre ikusiko ez dugunik. Aurrez aurrekoan pazienteak kontaktzen dizunaz gainera, beste informazio bat ere bildu dezakezu. Osasun arazo fisikoen atzean beti daude arazo psikologiko batzuk eta hori dena aurrez aurrekoan hobeto ikusten da, jakina. Saiatzen gara premia handienekoak identifikatzen, hori bai, eta jendeak ulertu behar du hori, ezin dugula egoera honetan lehen bezala jokatu; ezin dela hemen jendea pilatu, eta horretarako neurri batzuk derrigor hartu behar ditugula.

◆ **Diagnostiko berantiarren arriskuaz ere ohartarazi zaigu.**

Bai, bai, gertatu dira halakoak ere. Egin ditugu hanka-sartzeak ere, baina ez pentsa lasai gaudenik.

◆ **Behin eta berriz aipatzen duzun espazio faltarena. Nola uler daiteke orduan baheketa masiboa ambulatorio barruan egin izana?**

Hori ezin da ulertu. Erabakia hartuta iritsi zitzaigun hona, eta guk ezin izan genuen ezer esan. Baina baheketa masiboa hemen egiteak ez dauka ez hankarik eta ez bururik. Baheketa egin dituzten beste leku guztietan karpak jarri dituzte edota osasun zentroetatik aparteko espazioak erabili dituzte testak egiteko. Hemen, ez. Guk egunean ezin dugu lagun baino gehiago atenditu aurrez aurre, eta orain hau? Oso gaizki iruditu zaidan zerbaite da hori.

◆ **13 eta 40 urte artekoek eskatu zaie Elgoibarren testa egitera joateko, baheketa selektibo horretan. Ez da zuri egiteko galdera beharbada, baina azalpenik baduzu?**

Ez dagokit niri horri erantzutea, ez, baina egia da udan adin tarte horretan asko zabaldu zela birusa. Orain iruditzen zait adin tarte hori zabaldu beharko luketela, baina ez dakit.

◆ **Zure egunerokoan nola ikusten dituzu pazienteak?**

Karga emozional handiarekin dago jende asko. Beldurrak,

“Baheketa masiboa hemen, ambulatorioan, egin izanak ez dauka ez hankarik, ez bururik. Oso gaizki iruditu zait hori”

zalantzak, ezinegona...asko dago hortik eta karga emozional guzti horrek izugarri eragiten dio gure gorputzari. Burua bere lekuan ez dagoenean gorputzak ez du behar bezala lan egiten. Immunitate sistema ere ahultzen du beldurrak, eta lo egin ezinak, estresak eta antsietateak min handia egiten diote gure osasunari. Osasunaz ari garela, alderdi fisikoa eta psikikoa dena dira bat. Lo egin ezinda dabilena ez da tripetatik ere ondo ibiliko, esaterako. Osotasunean ulertzen dugu guk osasuna.

◆ **Karga emozional horri lotutako patologien ugaritze bat igarri duzue? Adibidez?**

Bai. Antsietate kasuak asko ugartu dira, esaterako, eta normal-normalak da. Jende asko dago esate baterako, lanik egin ezinda eta horrek sortzen duen egonezinari lotuta estres eta antsietate kasu ugari ari gara ikusten. Kontzentratzeko arazoak ditu jende askok, loa galdu dutenak ere ez dira gutxi eta ezer egiteko gogo eta indarrik gabe sentitzen dira beste asko. Horrek epe ertainera arazo handiak ekarriko dizkigu. Ahalegindu behar gara ahal den lasaien egoten, baina hori nola esango diozu ba lanik gabe gelditu denari! Zaila da. Kirola egiteko esango nioke jendeari, pasiarak emateko eta topatzeko bidea burua gustuko gauzetan entretentzeko. Beti ere lagungarri da hori, baina halako egoeretan gehiago.

◆ **COVID-19ak eragindako egoerara egokitu beharrak ekarri du onuraren bat Lehen Mailako Arretan?**

Gauza batzuetan egin da hobera, bai. Lehen, analisiak eskatzeko kontsultara etortzen zen jendea, eta zita hutsalak izaten ziren, alferrekoak edo telefonoz egin ahal zirenak gutxienez. Espezialistentzako txanda hartzera ere etorri behar izaten ziren, bolante bila, eta hori kendu dugu. Orain, zuzenean, bolante beharrik gabe bidaltzen ditugu pazienteak espezialistarenera. Horretan hobera egin dugu. Kontsultak benetan behar diren gauzetarako dira orain, patologiak aztertzeke.

◆ **Zergatik da beharrezkoa Lehen Arretako Unitateetan baliabide gehiago jartzea?**

Lehen triajea hemen egiten dugulako. Hemen, Elgoibarko ambulatorioan, COVID gela bat daukagu, denok erabiltzen duguna. COVID-19 gaitzaren sintomak dituzten guztiak hor artatu behar izaten ditugu bai pediatrak eta bai gainerako mediku guztiok, eta gauzak ondo egiteko modua ez da hori. Lekurik ez daukagu. Sarrera-irteera guztiak ere ate beretik egiten dira hemen.

Euskal kulturaren plaza DA!

Abenduko lehen egunetan euskaldunen eta kulturzaileen topaleku izaten da Durango, eta kultur eskaintza zabala egoten da era guztietako publikoarentzat. Idazleek eta musikariek euren irakurle eta entzuleekin egoteko aukera izaten dute, eta lan berriak aurkezteko eta eza-gutzeko modua izaten da azokan. Aurten, pandemiak behartuta, azoka bera ez da egingo, ez behintzat ohiko formatoan. Hala ere, azokak 2.300 produktu izango ditu online dendan, eta Durangok kulturaren plaza izaten jarraituko du, ehun kultur ekitaldi antolatu dituztelako egunotarako. Era berean, *zu non, han DA* ekimenaren bidez Euskal Herri osora zabalduko dute azoka, baita Elgoibarrera ere, Pitzintxu liburu dendaren bidez.

- AINARA ARGOITIA -

Durangoko Azokako taupada ez da etengo 55. edizioan. Hala jakinarazi zuen Gerediaga elkarteak, Durangoko Azokaren antolatzaile nagusiak eta antolaketa taldera batutako beste elkarte, erakunde eta taldeen koordinatzaileak. Eta ez, azokaren taupada ez da eten. Izan ere, azaroaren 26az geroztik 2.300 produktu baino gehiago daude zintzilikatuta azokako webgunean jarri duten online dendan, tartean 852 nobedade, eta gaurtik abenduaren 8ra egongo dira salgai. Horrez gain, egun horietarako ehun kultur ekitaldi antolatu dituzte Durangon.

“Erakusmahaiak beteta ikustera ohituta gauden gune hau, aurtengoan online dendaren biltegi, eta sormen eta kultur ekitaldi desberdinen erakustoki bihurtuko da”, esan zuen Nerea Mujikak, Gerediagako presidenteak azokaren aurkezpen egunean, aurtengo nobedade handiena izango den online dendari erreferentzia eginez. Kulturzaileek aurten sortutako 852 nobedade izango ditugu eskura www.durangokoazoka.eus/eu/denda helbidetan: 636 liburu, 100 musika-produktu, 44 aldizkari eta 72 bestelako (ikus-entzunezkoak, jokoak, papergintza...). Online dendan erosketa egiten duten lehenengo mila erosleek aurtengo kartelaren irudiarekin egindako poltsa berezia jasoko dute doan, euren erosketarekin batera. Era berean, 45 eurotik gorako erosketa guztiek ez dute bidalketa-gasturik ordaindu beharko.

Ehun kultur ekitaldi

Azoka, baina, ez da salerosketarako gune hutsa. Azoka egunetan kulturaren plaza bihurtu ohi da Durango eta horri eutsiko diote aurten ere. Antolatzaileek ehun kultur ekitaldi antolatu dituzte,



bi gunetan: Landako Gunean eta Plateruenan. Plateruenan, diskoen aurkezpenak egingo dituzte, abenduaren 5etik 8ra, 10:30etik 21:00ak arte. Guztira, 37 musika-talde igoko dira taula gainera, estilo guztietakoak. Besteak beste, honako taldeak arituko dira oholztan: Bulego, Marlik, Zetak, Mikel Urdangarin, Haxotz, Korrontzi, Rafa Rueda, Basabi, Gaitibu, Hibai, Trikidantz, Kohatu, Pantxix Bidart, Peio eta Itsua, Roberto eta Miren Etxebarria, X Sakara, Maria Rivero...

Gainerako jarduerak Landako Gunean egingo dira. Goizeko lehen orduan familientzako ipuin aurkezpenak eta ikuskizunak izango dira; ondoren, gai desberdinei eta aktualitateari lotutako mahainguruak. Goiz eta arratsaldez, literatur solasaldiak eta liburuen

aurkezpenak ere izango dira. Eguerdian, ikus-entzunezkoen txanda izango da, eta umeentzako filmak eta film laburrak emango dituzte. Arte eszenikoek ere izango dute lekua Landako Gunean, eta irakurketa dramatizatuak ere antolatu dituzte. Landako Guneako ekintzetan, honako idazle hauek parte hartuko dute, besteak beste. Uxue Alberdik, Danele Sarriugartek, Bernardo Atxagak, Miren Agur Meabek, Yurre Ugartek, Kattalin Minerrek, Andoni Olariagak, Iñaki Egañak...

Streaming bidez, zuzenean

Azokako webgunetik Durangon gertatzen dena jarraitzeko aukera izango dugu kulturzaileok, etxetik. Izan ere, bi streaming kanal zabalduko dituzte webgunean, bata Landako Guneari dagokiona eta bestea Plateruenari dagokiona, eta haien bidez, azoka ikusi, entzun eta gozatu ahal izango dugu egunero, 10:30etik 21:00ak bitartean.



Durangoko Azokaren taupada Elgoibarren

Osasun-alarmaak ezarritako aforo eta mugikortasun murrizketak kontuan hartuta, *Zu non, han DA!* proiektua jarri du aurten martxan Durangoko Azokak. Egitasmo horrek bi ardatz izango ditu: Plaza eta Denda. Lehenengoa, musika eta zuzenekoekin lotuta egongo da. Durangoko Azokak kontzertuak antolatuko ditu Euskal Herriko zortzi herritan: Amurrio (Burubio), Gasteiz (Jimmy Jazz), Bermeo (Kafe Antzokia), Bilbo (Euskalduna), Ondarroa (Beikozini), Azpeitia (Sanagustin eta Soreasu), Donostia (Doka eta Dabadaba) eta Aurrabia (Totem). Kontzertuak abenduaren 5etik 8ra antolatuko dituzte, eta herri bakoitzean bi eguneko egitaraua egongo da. Sarreraren prezioa 8 eta 15 euro artekoa izango da, eta kontzertu guztietan zainduko dituzte lokalaren edukiera eta gainerako osasun-arauak (Sarrerak azokaren webgunean eskuratu ahal izango dira). Bigarren ardatza denda izango da. Ekimen honen barruan, Euskal Herriko hainbat liburu dendatan modu presentzialean salduko dituzte azokako produktuak, abenduaren 9tik urtarrilaren 8ra, tartean Pitxintxun. “Azokako online denda abenduaren 4tik 8ra egongo da zabalik, baina Azokaren eragina Gabonetarako erosketetara ere zabaldu nahi dugu, eta liburu dendetan emango diogu jarraipena online dendari”, azaldu zuten aurkezpenean Gerediaga elkarteak Nerea Mujikak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburu Bingen Zupiriak.



MARI JOSE ESTIBARITZ PITXINTXU DENDAKOIA

“Bai guretzat eta bai kulturagileentzat ere ona litzateke Durangoko taupada urte guztira zabaltea”

Kanpotik begiratuta ez dirudi beharbada liburu denda, baina literaturzalea denak, eta zer esanik ez, dendaostera sartu denak badaki Pitxintxu liburu denda erreferentziazkoa dela gure bueltan. Lehen begiratuan, beste zerbait ematen badu ere, dendaren %50 liburu denda da Pitxintxu, eta Durangoko Azokaren *Zu non, han DA* egitasmoan parte hartuko du aurten. Beraz, Durangoko Azokaren webgunean bakarrik ez, Pitxintxun ere eskuratu ahal dira aurtengo nobedadeak eta besteak.

◆ **‘Zu non, han DA’ ekimenera batu zarete. Zergatik?**

Guk beti egin dugu ahalegina Durangorako argitaratzen diren nobedadeak dendan izateko eta gure bezeroei zerbitzu on bat emateko, baina iruditu zaigu Durangoko Azokak aurten egin digun keinu hau aukera ona izan daitekeela guretzat. Egia da, Durangoko taupada beti iristen dela gurea bezalako liburu dendetara ere, batetik, Gabonak gainean izanda operari bila hasita egoten delako jendea, eta bestetik, argitalpen gehienak ere orain izaten direlako, baina aurten gehiago saltzeko aukera ikusten dugu. Hori bai, lana ere gogotik egin beharko dugu. Denda txiki

batentzat aukera ona da hau, baina aldi berean, denda berrantolatzea eskatzen du. Guk, adibidez, pareko lokala hustu dugu eta hor jarriko dugu gure erakusmahai. Durangoko Azokak espazioa dauka, guk ez daukaguna, eta hori abantaila handia da. Guk nahita ere ezin dugu dendara iristen zaigun material guztia Durangon bezala erakutsi. Baina izatez han eskuratu daitekeen dena eskuratu daiteke hemen, egunean bertan ez baldin bada, bi egunen barruan.

◆ **Zer da Durangoko azoka zuentzat?**

Durangoko Azokak hainbat gauza biltzen du bere baitan. Ba-

tetik, fetxa bat da Durango, zeinari begira aritzen diren lanean idazleak, argitaletxeak eta kazetariak, eta bestetik, festa da Durango, euskal kulturaren, eta oro har, euskalgintzaren festa. Lehenengoaren harira esango dizut, gaur egun, bi kolpetan emateko prestatuta dagoela euskal literatur sistema. Kolpe handia Durangorako ematen da, eta udaberri aldera etortzen da bigarren kolpea, txikiagoa. Horrek esan nahi du Euskal Herriko liburu denda guztietara ere fetxa horietan iristen direla liburu berriak, baina gertatzen zaiguna da neguko kolpean herritar askok Durangon erosten dituztela nobedade guzti horiek. Iristen zaigu guri ere taupada hori, bai, baina bai guretzat eta bai kulturgileentzat ere ona litzateke Durangoko taupada hori urte guztira zabaltzea. Kulturaz ari garela sarri esaten dugu ez dela komenigarria kultur ekitaldi guztiak hiriburuetan edo hiri handietan zentratzea; behar ditugula antzokiak, zinema-aretoak eta kultur ekitaldiak herrietan ere. Hau da, gurea bezalako herrietan ere bizirik behar duela kulturak. Bada, gauza bera esango nuke liburu eta disko salmentaz ere: bizirik mantendu behar ditugula denda txikiak ere. Horregatik Durangoko Azokaren antolatzaileek denda txikiak kontuan hartzea gauza handia da. Gerediaga Elkartearen helburuetako bat euskal kulturari bultzada ematea da, eta horretarako, denoi komeni zaigu Durangoko taupada Euskal Herri osora zabaltzea; komeni zaigu zazpi lurraldeetan egotea denda txikiak bizirik.

♦ Pareko lokalean elgoibartarrek Durangorako argitaratutako liburuei leku berezia egin zenieten iaz. Aurten zer duzue pentsatuta?

Aurten ere ari gara lanean. Joan zen astean jarri genituen ipuinak eta album ilustratuak txukun-txukun beste lokalean, eta egunotan lokal batetik bestera ibiliko gara seguru. Iruditzen zaigu jende asko ez dela kontziente literatur sistema zer den Euskal Herrian. Jende askok ez du jakingo, adibidez, zenbat argitaletxek argitaratzen duten euskaraz. Galdera eginez gero, oso jende gutxi hurbilduko litzateke ziurrenik zenbaki errealerara, eta horregatik erabaki genuen iaz argitaletxeen logoak inprimatzea eta paretean ikusteko moduan jartzea. Elgoibartarren liburu batzuk eraman genituen eskaparatera, eta baziren batzuk. Aurten, lokala hustu eta erakusmahai handiagoga jarriko dugu, herritarrek liburuak Durangon bezala ikusteko aukera izan dezaten. Izan ere, herritar askoren ustea da Durangon aurki ditzakeela hemen aurkitu ezin dituen gauza asko, eta ez da egia. Hemen, eta gurea bezalako gainerrako dendetan, ezin dugu dena izan aldi berean, baina egun batetik bestera eskatutakoa hemen izango du bezeroak, eta gehien saltzen diren liburuak eta nobedade direnak urte guztian dauzkagu dendan. Argitaletxeek eta Elkar banaketak oso ondo antolatuta dute sistema eta nobedade guztien ale batzuk beti bidaltzen dizkigute dendara, atera ahala. Horietako asko bueltan bidaltzen ditugu gero, inork begiratu ere egin gabe. Zubi-lan bat egitea dagokigu denoi. Batetik, garbi dago liburu saltzaileok zenbat eta gehiago jakin liburuez eta liburu sistemaz orduan eta hobea dela, eta bestetik, argi dago bai antolatzaileek, bai Durangoko Azokak eta bai argitaletxeek ere lan bat egin behar dutela liburu dendan kontuan hartzeko.

♦ Gero eta liburu denda gutxiago daude gure bueltan. Nola eusten zaio bizi zuena bezalako liburu denda bati? Zer behar du euskal literatur sistemak?


Liburu denda bat urte guztian bizirik mantentzea izugarritzko lana da. Garbi dago euskal literaturak, eta oro har euskal kulturak, behar dituela ebentokak, behar dituela izarrak-izan persona izarrak, izan gertakari izarrak- eta momentu batean behar duela ispilu bat ere, dizdiratsu eta beste edozein kulturarekin homologagarri ikusteko, baina hori, aldi berean, ispilukeri bat da, ilusio bat. Euskal kulturak benetan behar duena zera da: kondizio duinetan ari diren langileak, eta langile horiek idazleak, musikariak, editoreak, kazetariak, liburu saltzaileak, garrantzioriak... dira. Sistema osoa osatzen duen jende guzti hori hartu behar da kontuan, eta hori dena martxan mantentzeko Durangoko Azoka ez da nahikoa. Urte guztiko martxa bat behar da hemen. Urteko salmenta guztien %10-15 saltzen da Durangoko Azokan, eta asko da, kontuan hartuz gero lau eguneko kolpe batean saltzen dela hori dena, baina, aldi berean, ez da horrenbeste, aintzat hartzen badugu gainerako %85a denda txikietan saltzen dela, urte guztian zehar.

♦ Liburu dendan artean ere alde dago.

Bai, badaude hierarkiak. Ez da berdina frankizia bat izatea edo denda txiki bat. Konparazioetan sartu gabe esango dugu bakoitzak bere logikak eta martxa dituela eta bizitzeko baldintza ezberdinak ere bai. Elkar Mega dendak, esate baterako, espazioa izateaz gain, atzetik banaketa sistema bat dauka, negozio horri eusten diona. Ez da liburuak saltzetik bizi, baizik eta liburuak distribuzioetik, Espainiako bigarren banatzaile handiena baita gaur gaurkoz. Beraz, denda txiki batek askoz lan handiagoga egin behar du bizirauteko. Eta hori esanda, aipatu nahi nuke liburu denda espezializatuek egiten duten lana, liburuetatik bakarrik bizitzea oso zaila delako. Nik uste dut, hori bai, gero eta kontzienteago garela gure denda txikiak bizirik behar ditugula eta kultura ere bizirik nahi dugula gure herrietan.

Jasone Osoro IDAZLEA

'Goazen' bildumako *Maddiren amona influencerra* liburua sinatzen egongo da Jasone Osoro idazlea, astelehenean, abenduaren 7an, 18:00etatik aurrera, Piti-txintxun. Alai argitaletxearekin argitaratu du liburua. Bildumako hirugarren liburua da hau. Aurrez *Iritsi gara* eta *Eiderren egunerokoa* ditu argitaratuta.





▶ ANTON AZPIAZU ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN ADITUA

“Ezin baduzu energia produzitu, gutxienez, kontsumitu energia garbia”

Antton Azpiazu (Elgoibar, 1956) langabezian geratu zen 57 urte zituela. Gorosabel enpresan lan egiten zuen, energia berriztagarrien alorrean, baina 2008ko krisialdiaren ondorioz, alor hori ixtea erabaki zuen enpresak. Une hartan erakundeetatik ere ez zegoen energia berriztagarriekiko apustu sendorik, baina Azpiazuk argi dauka etorkizuna bide horretatik etorriko dela, eta lanik gabe geratu zenean bere kabuz hasi zen sektore horretan lanean, Tecasol enpresa sortuz. Eguzki plakek eta energia berriztagarriek ematen dituzten abantailei buruz hitz egin dugu berarekin.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Noiz eta nola barneratu zinen energia berriztagarrien sektorean?

Elektrizista naiz ofizioz, eta mundu hau beti interesatu izan zait. Gorosabel enpresan lan egiten nuen, eta 1997an hasi ginen energia berriztagarrien alorra lantzen, bereziki, eguzki energiaren alorra. Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Ingeniaritza eskolarekin batera eguzki plakek montatzeko makina bat sortu genuen. 2012ra arte nahiko ondo saldu ziren makinak, baina 2008ko krisialdiak eta ener-

gia berriztagarrien inguruan legedian izan ziren aldaketek gainbehera ekarri zuten. Gorosabelek erabaki zuen negozioaren alor hori ixtea, eta ni lanik gabe geratu nintzen 2014an, 58 urte egiteko nengola. Adin oso txarra lanik gabe geratzeko. Jubilatzeke oraindik urte batzuk falta, eta beste inon lanean hasteko nagusiegia.

◆ Hala ere, eguzki energiaren aldeko apustuarekin segitu duzu. Zer dela eta?

Nik hori nekien egiten, horretan ibili nintzen azken 20 urteetan, eta horrekin

jarraitzea erabaki nuen. Nik uste nuen 2014 edo 2015. urteetan hasiko zela energia berriztagarrien sektorea indarra hartzen, batez ere, Europan hasita zegoelako, baina Espainiako Gobernuak garai hartan ez zuen aurrerabide handirik ematen. 2018ra arte-edo, legeak ez du batera lagundu sektore hau. Gainera, aurrez, energia berriztagarrietan inbertitu zuten askok dirutza galdu zuten, eta horrek guztiak ez zuen batera lagundu. Gertatu zena izan zen bankuek kredituak

erraz eman zituztela garai batean energia berriztagarrietan inbertitzeko, eta gero, legea aldatu zenean, batzuek ezin izan ziotela kredituari aurre egin. Beldurrak eta sektorearen ezjakintasunak bota du jendea atzera. Gainera, Iberdrola eta beste elektrizitate konpainia asko ere energia garbien kontrako kanpaina egiten aritu ziren. Nire ustez, denbora irabazteko estrategia izan zen, eurak ez zeudelako sektore honetan prestatuta. Orain prestatu dira, eta beraiek ere eskaintzen dute energia garbia.

♦ **Orain, baina, egoera aldatu egin da. Jendeak badu interesik energia berriztagarrietan?**

Azken bi urteotan asko aldatu da egoera, eta gaur egun askoz errazagoa da energia berriztagarrien aldeko apustua egitea. Denetik iristen zaigu eguzki energiari buruzko informazioa eta klima aldatketaren kontua ere asko entzuten da. Legez etorriko da energia berriztagarriak jarri beharra, erakunde publikoetan eta industrian, batez ere. Noiz etorriko den ez dakit, denbora beharko du, baina iritsiko da. Jendea gero eta gehiago etortzen da galdetzerara egia esan, eta interesa erakusten dute. Orain arte jende askok uste zuen garestia zela, eta gainera, ez zuela funtzionatzen. Azken ideia hau hasi da aldatzen, leku askotan jartzen dituztelako eta konprobatu delako funtzionatzen dutela. Orain, gainera, dirulaguntzak ematen dituzte hasierako inbertsioa egiteko, eta hori ere batzuk mesfidantzaz hartzen dute. Uste dute laguntzak ematen badituzte dela ez delako errentagarria, baina guztiz kontrakoa da. Errentagarria da, eta laguntzak ematen dira jendea animatu dadin.

♦ **Industrian ere erabilgarriak dira beraz, zure ustez, eguzki panelak?**

Dударик gabe. Hasi dira esaten hementik urte batzuetara karbonoan neutroak izan behar garela, eta Elgoibarko enpresen bezeroek eskatu egingo dute piezak ekologikoki fabrikatzea. BMW edo Mercedes enpresentzako pieza asko egiten dira Elgoibarren, eta horiek karbonorik gabeko autoak produzitu nahi badituzte, Elgoibarko enpresei ere

derrigortuko diete modu ekologikoan fabrikatzera. Gaur egun gainera, enpresak industrigune modernoetan eraikita daude, eraikin berriak dira eta teilatuetan panelak jartzeko aukera oso ona eskaintzen dute.

“Etxean behar dugun energiaren erdia lortu dezakegu eguzki panelekin”

♦ **Zein abantaila dauka eguzki plakak jartzeak?**

Eguzki energia doan daukagu, eta hori aprobetxatzea da kontua. Eguzki plakak jarrita, egunez, elektrizitatea doan izango duzu. Euskal Herria ez da oso eguzkitsua, baina Alemania edo Ingalaterra ere ez, eta han askok jartzen dituzte eguzki plakak. Euskal Herrian ez dago ohiturarik, eta pentsa, hementengo eguzki energiarekin etxean behar dugun elektrizitatearen %40-50 lortu dezakegu. Instalazioa amortizatzeko 8-9 urte behar izaten dira gutxi gorabehera, eta hortik aurrera, beste 15 bat urtean elektrizitatea doan emango dizu. 25 urteko bermea daukate panelek, eta kasu batzuetan 30 edo 35 urte ere irauten dute. Garai batean energia edukitzen hasi zirenean herrietan zentral hidraulikoak zeuden, kaleko instalazioa Udalarena zen... nolabait esateko energia herritarrek kudeatzen zuten. Gero enpresa handiek pribatizatu egin zuten energia, eta nahi zuten prezioa ipini zioten, gainera. Eguzki plakak jartzeak duen abantaila bat horixe da, norberak kontsumitzen duen energia norberak kudeatu dezakeela, eta gainera, energia garbiak erabilita. Nik argi diot, ezin baduzu energia produzitu, gutxienez kontsumitu energia garbia. Baina oraindik ez dago oso zabaldua eguzki plakak jartzeko ohitura.

♦ **Zein aukera daude energia garbia kontsumitzeko?**

Energia garbia saltzen duten kooperatiba asko daude, gero eta gehiago. Goiener, adibidez, oso ondo ari da lanean. Kooperatiba hauek normalean irabazi asmorik gabekoak izaten dira, eta prezio justuagoak erabiltzen dituzte. Fakturak gainera, garbiak egiten dituzte, ulertzeko errazak. Ez gaur egungo fakturak bezala; jende askok ez ditu ulertu ere egiten, eta ez daki zer ordaintzen duen ere. Beste kooperatiba hauek askoz merkeagoak ez dira, baina behintzat argi azaltzen dute zer eskaintzen eta zer kobratzen duten.

♦ **Eguzki plakak baserri edo landa guzuekin lotzen dira. Kaleko eraikinetan ere jartzen al dira?**

Euskal Herrian toki gutxi daukagu, eta etxebizitzetan ez da erraza eguzki plakak jartzea. Komunitatean gainera bizilagun guztiak ados jartzea oso zaila da, baina orain hori arautzen ari dira. Adibidez, teilatuan plakak jarri daitezke erabilera komunetarako: portaleko argia, igogailua... Egia da ez dagoela horretarako ohiturarik, eta hemen gehienbat txaboletan, baserrietan edo familia bakarreko etxebizitzetan jartzen direla. Txabola batzuentzat hau da elektrizitatea edukitzeko modu bakarra, askoz garestiagoa irteten delako instalazio elektrikoa txabolaraino eramatea. Eguzki energia egunez bakarrik daukagu, hori ere egia da, baina hala ere, argiaren faktura asko murriztu daiteke. Erdira etortzen da faktura, behar duzunaren erdia zuk zeuk produzitzen duzulako. Plakei batera jartzeko aukera ere badago, baina hori garestiagoa da.

♦ **Zu sinistuta zaude etorkizuna hau dela.**

Bai, ez daukat dudarik. Eguzkiaren energia hor dago, eta teknologia badaukagu. Montatzeko erraza da, garbia eta emaitza onak ematen ditu. European herrialde askotan erabiltzen dituzte, eta Espainian ere, hemen baino gehiago. Etorkizuna bide honetatik joango dela konbentziturago.

Arrokerixa haundirik be ibilli:

Zer moduz zabiz? Arrokerixa haundiri(k) pe. motell! Beti badaukat miñen bat.

Elgoibarko Udalak euskarazko produktuen katalogoa banatuko du herriko haur eta gazteen artean

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko gazteentzako 11.000 euskarazko produktu biltzen ditu Katalogoaren edizio berriak eta Elgoibarko Udalak ehunka ale banatuko ditu Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleen artean, modu horretan gurasoengana ere iritsi dadin. Era berean, baina, Katalogoa sarean kontsultatzeko aukera ere badago, bai *Katalogoa.eus* webgunean, bai eta, Elgoibarko Udalaren webgunean ere, Euskara Saialaren atalean. Katalogoa urte osoan berritzen doan webgunea da, eta beraz, etengabe hazten ari da jasotako erreferentzien kopurua. Paperezko edizioak bezala, *katalogoa.eus* webguneak ere bi atal nagusitu ditu: 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin osatutakoa da bata, eta 12-16 urte bitarteko haurrentzako produktuekin osatutakoa bestea. Erabiltzaileak produktuen bat begiz joz gero, argialetxearen denda birtualera sartzeko aukera dauka gainera, zuzenean handik erosteko.



Argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Ludotekak 'Gabonetako collagea' lelopean

Elgoibarko Ludotekak argazki lehiaketa antolatu du *Gabonetako collagea* lelopean HH5 eta LH6 bitarteko haurrentzat. Parte hartu nahi dutenek whatsapp bidez (656 740 793) edota posta elektronikoz (*ludoteka@elgoibar@gmail.com*) bidali beharko dituzte euren lanak abenduaren 7a eta 18 artean, ondorengo datuak zehaztuz: haurrentzako izen-abizenak, ikasmaita eta telefono zenbaki bat. Pertsonako, lan bat bakarrik aurkeztu ahal izango da. Sariak banatzeko bi adin tarte bereiztuko dituzte: HH5etik LH3ra bitarteko haurrentzako kamara digital bat banatuko dute, txartelarekin eta zorro eta guzti. LH4tik LH6ra artekoetan, berriz, bat-bateko inprimagailua banatuko dute. Era berean, ikuslearen saria ere egongo da. Irabazleak Washi Tape collagea egiteko sorta jasoko du. Irabazlea aukeratzeko, jasotako lan guztiak Kultur Etxe pareko lokalean jarriko dituzte ikusgai, eta abenduaren 21etik 27ra bitartean botoa emateko aukera izango dute ikusleek. Pandemia dela-eta, ez dute sari banaketa ekitaldirik egingo, eta irabazleen izenak hiru kanalen bidez jakinaraziko dituzte abenduaren 29an: Udalaren webgunean (*elgoibar.eus*), Facebooken (*@elgoigazte*), whatsappez (Ludotekako bazkideei) eta prentsaren bidez.



MENDARO

Iker Karrera mendi korrikalariaren liburuaren aurkezpena hilaren 11n

Iker Karrera mendi korrikalari handiaren biografia idatzi du Unai Ugartemendia kazetariak. *Bidea ipar* jarri dio izenburua liburuari idazleak, eta abenduaren 11n Mendaron aurkeztuko du, San Agustin antzokian, 19:00etan. Aurkezpenean Iker Karrera bera ere egongo da. Sarrerak Morroskillo dendan daude salgai, 2 euroan.

'Erradikalak ginen' ikuskizuna, abenduaren 12an

Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal antzerkilaria eta ipuin kontalariak neska gazte promesa etiketaz, zahartzeaz, gorpuzaren aldaketaz, sexualitateaz, merkatu patriarkalaz, interseksionalitateaz, beldurraz, biolentziaz eta zeharkatzen gaituzten beste hainbat gaiz jardungo dira abenduaren 12an Mendaron emango duten *Erradikalak ginen* ikuskizunean. Feminismoa zeharlerrotzat hartuta arituko dira; umorez, beraz, serio. Ikastolako jolastokian izango da saioa, 17:30ean hasita, eta sarrerak Puxika dendan jarri dituzte salgai, 2 euroan.

'Olentzeroren zaku magikoa' haurrentzako ikuskizuna, hilaren 19an

Zirtaka Antzerki Taldeak Olentzeroren zaku magikoa ikuskizuna emango du abenduaren 19an, Mendaron, ikastolako jolastokian. Udaletik jakinarazi dute edukiera mugatua izango dela eta sarrerak udaletxean bertan edota liburutegian eskuratu behar direla, 2 eurotan. 50 minutuko ikuskizuna da eta dantza eta musika uztartuko dituzte.

Mugertza krosa jokatu ahal izateko bete beharreko baldintzak zehaztu ditu Mintxeta Atletismo Taldeak

Urtarrilaren 24an da jokatzeneko 78. Mugertza krosa, Elgoibarko kirol ekitaldi nagusia, baina hala izateko lau baldintza bete behar dira aurreratu du Mintxeta taldeko zuzendari Zigor Diezek: “Lehenik eta behin, antolatu ahal izateko dirua izatea, eta horren barruan Udalaren eta babesleen laguntza; bigarrenik, erakundeen baimena eta ikusleekin jokatu ahal izatea. Lasterketa telebistaz ematea da hirugarren baldintza eta nazioarteko atletarik onenak, tartean afrikarrak, Elgoibarrera ekartzeko aukera izatea laugarrena”, azaldu du Diezek. Baldintza horiek guztien gainetik, baina, pandemiaren bilakaerak izango du azken hitza, eta horren arabera agintariek hartzen dituzten erabakiek. Proba antolatu ahal izateko jarri dituzten baldintzetako batzuek betetzen dituztela zehaztu du. “Badaukagu Udalaren eta Aldundiaren babesa, baina Osasun Sailak izango du azken hitza. Gaur gaurkoz semaforo gorriarekin egotea ez da ona guretzat”. Protokolo bat lantzen ari direla gaineratu du. “Mintxeta kirolguneak badu COVID-19 aurre egiteko protokoloa eta gu gurea lantzen ari gara, besteak beste, zenbat korrikalari lehiatu ahal izango diren lasterketetan, euren bidaiak eta hemen egingo duten egonaldia nola kudeatu edo ikusleek non eta nola egon ahal izango duten. Publikoarekin jokatea nahitaezkoa da guretzat, aforo mugatuarekin bada ere”.



Umeen lasterketarik ez

Era berean, argi dute ezingo dutela umeen lasterketarik antolatu. Junior eta senior mailako lasterketak bakarrik jokatuko lirakeke, eta lasterkarien kopuruak mugatuta. Telebistaren baietza badutela dio Diezek, ETB prest dagoela lasterketa emateko. Finantzazioari dagokionez, babesle batzuek aurten ezingo dietela diruz lagundu jakinarazi diete, egoera ekonomiko “txarra” dutela-eta. Alabaina, krosa antolatzeke finantzazioa eskuratzea lorgarria dela uste du Diezek. “Aurtengo edizioa salbatzea garrantzitsua izango litzateke eta horretarako ari gara lanean”, dio. Aitortzen du, hala ere, etxe barruan ere zalantzak dituztela eta eztabaida bizirik dagoela krosa antolatzeke gai izango diren ala ez, denak ez direlako bera bezain baikorrak. Aipaturiko baldintzak betetz gero, ez du krosa antolatzeke esperantzarik galdu. “Bien bitartean atletekin kontaktuan jarraitzen dugu eta adi gaude ea zer esango duen Jaurlaritzak datorren abenduaren 10ean. Hor hartu behar dugu azken erabakia”.



Hodei Ezpeleta hirugarren Euskal Herriko Bigarren Mailako Aizkora Txapelketan

Urrezko Aizkolarien Euskal Herriko 2. eta 3. mailetako Aizkolari Txapelketako finalak jokatu zituzten, domekan, Arabako Bastida herrian. Bigarren mailako finalean zazpi aizkolari lehiatu ziren, horien artean Hodei Ezpeleta mendarozarra. Aizkolariek bi kanaerdiko enbor, beste bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar zituzten, eta Arostegiko Oier Kañamares *Kañamares IV* aizkolari nafarra izan zen lanak bukatzen azkarrena (23'38"). Luis Txapartegi aizkolari aizarnarrak egin zuen bigarren, irabazlearengandik 40 segundura. Hirugarren postuan sailkatu zen Hodei Ezpeleta (25'09"), Txapartegirengandik 50 segundura. Lehen bi sailkatuek datorren urtean aizkorako maila nagusian, lehen mailan, aritzeko txartela irabazi zuten. Hor-taz, datorren Euskal Herriko aizkolari onenkin lehiari aritzeko atarian geratu da Ezpeleta.

Kirol sariak eta xake txapelketa bertan behera

Urte amaieran antolatu ohi dituzten bi kirol ekitaldi bertan behera laga dituzte; batetik, Kirol Federatuaren Urteko sariak, eta, bestetik, Nazioarteko Xake Txapelketa.

LANA.....

Eskaerak

Langile euskalduna behar dugu hilean bi asterburuz lan egiteko: adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.

☎ 615 006 733

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Erreferentzia onak ditut.

☎ 631 439 959

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago.

☎ 631 165 471

Adinekoak zainduko nituzke. Euskalduna naiz.

☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Papelak legez ditut.

☎ 643 601 205

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan zein orduka.

☎ 602 169 509

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz.

☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.

☎ 642 975 934

Baserriko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat eta ordutegi malgua.

☎ 623 162 196

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat.

☎ 685 405 820

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan.

☎ 642 975 934

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edota etxeko langile moduan.

☎ 610 668 183

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest. Asterburuetan ere bai.

☎ 612 531 623

IBILGAILUAK.....

Autokarabana integrala salgai. 7 metrokoa, egoera onean, ekipatua. Urtean zehar gara-jean gordeta.

☎ 656 724 782 / 638 604 999

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

Badatoz Eguberriak!

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoalduko Finantza Administraziozaindarien Konta Batzordea

ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administraziozaindario-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zombakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean, kuota komunitarioen kopuru handi bat zor duen etxe-jabe bat dago. Pertsona horren etxebizitza hipotekatuta dago, eta jakin nahi nuke ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko aukerarik dagoen.

Ordaindu gabeko kuotei dagozkien gastu orokorrak ordaintzen laguntzeko betebeharririk eratoritzen diren komunitatearen aldeko kredituak lehentasunezkoak dira. Hala ere, tamalez, lehentasun hori ez da modu automatikoan aplikatzen. Baliarazi ahal izateko, kredituaren izaera pribilegiatua agerrarazi behar da, jabeari ordainketa egitera eta Jabetza Erregistroan jasotzera behartzen duen epaia emanaz. Horretarako, prozedura judizial bat egin behar da, eta bertan parte hartzera dei egin behar zaie erregistroan jasota dauden hipoteka-zordun guztiei.

Ondorioa: jabetzak hipotekatuta dituzten jabe zordunei ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko prozeduran, beharrezkoa da enbargoa Jabetza Erregistroan jasotzea eta aurretik inskribatutako hipoteken edo enbargoen aurrean lehentasunezkoa dela adieraztea. Prozeduran parte hartzen duen profesionalak horien titular guztiei aipatu eta luzatu behar die demanda, ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko prozeduran parte hartu duten guztiei, alegia.

ASESORIA GO/R

AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENe**ko** bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Aimar**, gaur 7 urte bete dituzulako. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Muxu erraldoi bat familiakoen eta bereziki, Liberen partez.



Zorionak, **Sare**, asteazkenean 2 urte bete zenituelako. Muxu erraldoi bat etxekoen, eta bereziki, Nora eta Laiaren partez.




Zorionak, **Eire!** Azkenean iritsi da abenduaren 6a! Primeran ospatuko dugu! Muxu erraldoi bat etxekoen, eta bereziki Iratiren partez! Eskua bete urte, txapel-duna!



Zorionak, **Mara!** Hilaren 9an, 3 urtetxo! Ondo pasa zure egunean. Besarkada handi bat, etxekoen partez.



Zure txanda ere iritsi da! Zorionak, **Lea!** Besarkada handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Aitana**, datorren ostiralean 7 urte beteko dituzulako. Ondo pasa zure urtebetetzean. Etxeko guztion partez.



Zorionak, **Malen!** 6 urte dagoeneko gure neska handiak! Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Lea!** Zure lehenengo urtebetetzea merezi dozun bezela ospatuko dogu. Muxu haundi bat familixakuen partez!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

ikusgaitzak

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu.
Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.

gipuzkoa.eus
Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpegirik onena.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioa Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

5 ZAPATUA

12:00 Manifestazioa murrizketen kontra. Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak eta Duintasunak deituta. Kalegoen plaza.

8 MARTITZENA

10:00 Kontzezio azokarik ez da egingo, baina Kontzezio Egunaren harira dultzaineroen kalejira egingo da Mendaron.

11 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Chefs'. Yllanak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

19:00 Aurkezpena: 'Bidea ipar'. Iker Karrera mendi korrikalariari buruzko liburua-ren aurkezpena, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Karrerak berak, eta Unai Ugartemendia idazleak hartuko dute parte ekitaldian. 'Iker, mendia etxea' dokumentala ere emango dute. Sarrerak/Morroskilon jarri dituzte salgai 2 euroan.

12 ZAPATUA

17:30 'Erradikalak ginen' ikuskizuna ikastolako patioan. Sarrerak Puxika dendan daude salgai, 2 euroan.

13 DOMEKA

16:30 Antzerkia: 'Botadun katua'. Glu Glu produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

18 BARIKUA

18:30 Erakusketa: Gemma Monreal margolari elgoibartarraren margolanak. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Zine foruma: 'Tully'. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du.



III. URTEURRENA

Manolo Untzilla Ondarre

2017ko abenduaren 8an hil zen,
93 urte zituela.

*Txinpartia euki dozu
bizitza luzian,
zenbat broma ta barre
umore onian,
pintzel fiña eskuan
baita foballian,
Manolo zu zaittugu
gure bihotzian.*



Maria Ansola Arrieta

"Azkuba"

2020ko abenduaren 1ean hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.**

Etxekoak



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00
Iluntzean: 20:00-22:00
Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

4 BARIKUA	5 ZAPATUA	6 DOMEKA
Egunez Arriola	Egunez Fernandez / Yudego	Egunez Fernandez
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---
7 ASTELEHENA	8 MARTITZENA	9 EGUAZTENA
Egunez Yudego	Egunez Arriola	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea
10 EGUENA	11 BARIKUA	12 ZAPATUA
Egunez Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola
13 DOMEKA	14 ASTELEHENA	15 MARTITZENA
Egunez Arriola	Egunez Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego
16 EGUAZTENA	17 EGUENA	18 BARIKUA
Egunez Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Ibañez
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagarza (Mendaro) 943 756 142
 * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638
 * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
 Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
 943 206 984

Zinea (Herriko Antzokian)



'Stardog eta turbocat'
 6 domeka, 16:30
 (Euskaraz)

'Nunca, casi nunca,
 a veces'
 (Ongarri zinekluba)
 10 eguna, 19:00

'Hil kanpatak'
 4 barikua, 19:00
 (Euskaraz, azpiitituluekin)

'El año que dejamos
 de jugar'
 12 zapatua, 19:00
 13 domeka, 19:00
 14 astelehena, 19:00

5 zapatua, 19:00
 (Euskaraz)

6 domeka, 19:00
 (Euskaraz, azpiitituluekin)

'Corpus Christi'
 (Ongarri zinekluba)
 17 eguna, 19:00

7 astelehena, 19:00
 (Euskaraz, azpiitituluekin)

'La candidata
 perfecta'
 (Ongarri zinekluba)
 26 eguna, 19:00

8 martitzena, 19:00
 (Euskaraz, azpiitituluekin)

Azaroan hildakoak

- **Francisco Almenara Monterde**
88 urte, azaroak 2
- **Francisca Astigarraga Iriando**
94 urte, azaroak 4
- **Isabel Martinez de Alegria Gorostiza**
94 urte, azaroak 6
- **Pedro Etxaniz Osoro**
67 urte, azaroak 7
- **Petra Merino Pozo**
86 urte, azaroak 10
- **Antonia Carrero Romero**
75 urte, azaroak 11
- **Luis Suarez Etxeberria**
94 urte, azaroak 14
- **Pedro San Martin Iriando**
91 urte, azaroak 17
- **Maria Antigua Ramirez Mellado**
88 urte, azaroak 17
- **Cayetano Casquero Moriano**
87 urte, azaroak 19
- **Felix Garcia-Abad Fuerte**
80 urte, azaroak 22
- **Manuel Rodriguez Zafra**
62 urte, azaroak 23
- **Carlos Lehr Iraegi**
72 urte, azaroak 25

BARREN sare sozialetan

facebook.com/barrenaldikaria twitter.com/barreneus instagram.com/barrenaldikaria



Manu Sanchez

Izaro Etxegibel



// Euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denboran mugatua”.

Mugatua horri ez diot nik itxura onik hartzen; ez dakarte ezer onik mugek,

mugarik ez dagoelako maiteko dut itsasoa zoratzeraino, akaso. Euskaraldia denboran mugatze horrek ez digu inolako mesederik egiten. Ohiturak betirako aldatzeak baino ez du balio.

Oraintsu, Onkologikoan bi urtean behineko mamografia azterketa egiteko zain nengoela, ezagun zaizkidan esaldiak entzuten hasi nintzen, ezlekuan baina. Zer zen hura? Irratia? ... Ez.

“Hor zaude, Santi?”, “Maria, aurrekoan baino konexio hobea daukazu?”, “Hasi egingo gara”.

Ai, enel!

Burua galdu nuela pentsatu nuen, hura ez zen lekua tankera hartako elkarrizketa bat entzuteko. Arraroa egin zitzaidan, zinez.

Nerbioak? Txanda iritsi zitzaidanean, gero eta gertuago entzuten zen jendearen marmarra aldagelatik. Sartu nintzen ilunetara, eta gaztekeraz berba egin zidan neskak, azentu andaluzarekin. Ordenagailua ezkerrean eta mamografiak egiteko aparatutzarra eskuman. Zer egin behar nuen esaten hasi zitzaidan. Harrituta, galdetu nion ea euskara eskola bat entzuten ari ginen, eta erantzun zidan baietz, klase hura ezin zuela inola ere galdu, nahiz eta lanean egon. Asko galtzen zuela bestela. Aditzak ikasten ari zirela, eta esfortzu handia egin behar zuela aurrera egiteko. Zuzen zekizkien aditzak; gogotsu eta pozik zegoen. A zer egoera bitxia hura, eta, era berean, ederra; gerritik gora biluzik eta euskara eskolan!

“*iChiquilla, el euskera me tiene loca!*”, esan zidan. “*A mí también*”, pentsatu nuen. *Bejondeizula!*

Horrela bai. Noizbait ez dugu Euskaraldirik beharko, euskararen itsasoaren mugak hautsiko baititugu. Has gaitezen abenduaren 4ko muga hautsiz, izan gaitezen behin betiko ahobizi edo belarriprest.

“... mugarik ez dagoelako maiteko dut itsasoa zoratzeraino, akaso”



hortz klinikak · clínicas dentales

943 36 63 77

Lasarte-Elgoibar-Tolosa

**IRRIBARREA BERRITU,
EGUNEAN KAFE BAT
BAINO GUTXIAGO
ORDAINDUTA**

*Etor zaitez eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe. Lehen kontsulta
eta diagnostikoa **doan**.*

*Zerbitzuak:
Odontologia Integrala: tratamendu guztiak
Larrialdietako zerbitzua
Inplanteak
Hortz estetika
Ortodontzia*

...

ESKATU ZURE TXANDA: 943 366 377

*Zure segurtasuna bermatzeko
gure protokoloak indartu ditugu.*

Bertso saio literarioa dendaostetik

Bertsolariak:



Nerea Ibartzabal



Miren Amuriza



Unai Iturriaga



Idazlea: Uxue Alberdi



Musikaria: Aitor Nova

Abenduak 29, asteartea
19:00

Elgoibarko Herriko Antzokia

SARRERAK Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunean
11 €, abenduaren 9tik aurrera (agortu arte).

Aita Agirre kulturgunea, 3. pisuan (9:00-15:00 ordutegian) edo
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus e-postara idatzita

